

2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.

Testua. TEXTO.

Ez da gehiago okertuko

[Nagore Irazustabarrena](#)



PISA (ITALIA), 1173KO ABUZTUAREN 9A. Hiriarentzat arrakasta militar eta oparotasun ekonomikoko urteak ziren haiek, eta katedralaren kanpandorre independentea eraikitzen hasi ziren. Bost urte geroago, ordea, hirugarren solairua amaituta, dorrea iparraldera okertzen hasi zen, zoru ezegonkor hartan hiru metroko sakonerako zimenduak ez zirelako nahikoak. Pisaren eta aldameneko estatu-hirien arteko gerrek kanpandorrea eraikitzeke lanak eten zituzten ehun urtez. Mesede handia egin zion horrek dorreari, asentatzeko denbora izan baitzuen; lanak jarraituz gero, amildu egingo zen.

1272an, Giovanni di Simone arkitektoak berriro heldu zien lanei, eta lau solairu berriak angelu apur batekin eraiki zituen, inklinazioa berdindu nahian. Baina 1284an genoarrek Meloriako gatazka irabazi zutenean, lanak berriro gelditu zituzten.

Azken txanpari 1373an ekin zioten. Tommaso di Andre Pisanoren agindupean paratu zituzten goiko solairua eta kanpaiak. Baina amaitu bezain pronto, dorrea berriro okertzen hasi zen, orduko hartan hegoaldera.

Orduz geroztik, dorrea zuzentzeko ahaleginak alferrikakoak izan ziren eta kontrako helburua lortu zuten. 1838an Alessandro Della Gherardesca arkitektoak dorrearen inguruan bide bat industu zuen, zimenduak bistan utziz; ingurua urak hartu zuen eta oinarriak oraindik eta ahulago geratu ziren. 1934an Benito Mussolinik dorrea bertikal ipintzeko zementua bota arazi zuen oinarrian. Baina filtrazioak saihestu ordez, mugitutako lurra bigundu zuten eta dorrea are gehiago okertu zen.

Gutxi falta zuen dorreak amiltzeko eta II. Mundu Gerran estatubatuarrak azken bultzadatxo eman nahi izan zioten. Inguruko dorre guztiak suntsitzeko agindua zuten, frankotiratzaileak saihesteko. Baina dorre okerraren txanda iritsi baino lehen, ezusteko erretretak gutxigatik salbatu zuen.

Dorrea amiltzeko arriskua ezabatzeko azken ahalegina 60ko hamarkadan hasi zen. 1964ko otsailaren 27an Italiako gobernuak arazoa konpontzeko laguntza eskatu zuen. Ingeniari, matematikari eta historialari talde bat Azoreetan bildu zen proiektua eztabaidatu eta martxan jartzeko. Helburua zehatza zen: dorrea gehiago okertzea saihestu behar zuten, baina guztiz zuzendu gabe, dorrearen inklinazioa baitzen turistak gehien erakartzen zituen elementua.

Emaitzak, ordea, mantso iritsi ziren. Dorreak okertzen jarraitu zuen eta 1990ean publikoari ixtea beste erremediorik ez zuten izan. 1993an marka guztiak hautsi ziren: oinarriaren eta goiko erlaitzaren artean 4,47 metroko aldea zegoen. Baina azkenean, zorutik 70 tona lur kendu ondoren, pixkanaka zuzentzen hasi zen. 2001ean zabaldu zituen berriro ateak eta berriki mugitzeari utzi dio; 3,99 metrotan egonkortu da, 1700. urtean zuen inklinazio berberean. Horrenbestez, Pisako dorrea ez da gehiago okertuko... datozen 300 urteetan behintzat.

GAIA/ASIGNATURA	Euskal Hizkuntza eta Literatura
MAILA/CURSO	3. DBH
IKASTETXEA/CENTRO	Iturruma BHI
DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO	Euskara
IRAKASLEA/PROFESOR / A	Arritxu Etxaluze Aroztegi Nora Iriarte Osés Iker Iriarte Ariztimuño Violeta Pérez Arana Belen Apezetxea Larrainzar
JATORRIA/FUENTE	
EGILEA/AUTOR	Nagore Irazustabarrena
IZENBURUA/TÍTULO	Ez da gehiago okertuko
ARGITALETXEA/EDITORIAL	Argia
URTEA/AÑO	2008
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	38.a
ISBN	
TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA	
OINARRIA/SOPORTE	Testu idatzia
FORMATOA/FORMATO	Jarraia
MOTA/TIPO	Narrazioa
ERABILERA/USO	Publikoa
ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA	
IRAKURRI BAINO LEHEN/ANTES DE LA LECTURA	-Testuaren irakurketaren helburua aurreratu: antolaketari erreparatzea, baita testu tipoari ere. Antolatzaileen birpasoaz gain, testu antolaketa edo egiturak ere gogora ekarriko ditugu (kausa-ondoriozkoa; deskribapenezkoa; narrazio sekuentziazkoa eta konparaziozkoa). Edukiaren gaineko hausnarketa 2. Formaren

		<p>hausnarketa 1. -Edukia aurreratu hipotesiak eginez. Tituluari eta argazkiari erreparatu, hipotesiak egin: zertaz arituko ote den testua... Ulermen orokorrekoak eta inferentziak egitekoak. -Tipografiari begira, edozein aldaketari erreparatu: titulua, egilea, esaldi nabarmenduak... Informazio bilatzea (aukeran dagoena).</p>
IRAKURRI BITARTEAN/DURANTE LA LECTURA		<p>-Paragrafoka antolatzaileak azpimarratu. Honen bitartez egitura mota errazago antzemango dute. Formaren gainean 1 eta 2.</p>
IRAKURRI ONDOREN/DESPUÉS DE LA LECTURA		<p>-Berrirakurketa eta azpimarraketa informazioa bilatzeko galderak lantzeko. -Paragrafoka ideia nagusia azpimarratu eta birformulatu. Ulermen orokorra 1 eta 2. -Denboran zehar dorrea zuzentzeko egindako lanak zerrendatu eta eskema bat prestatu. Ulermen orokorra 1 eta 2. -Irudia deskribatu, ondorioak atera: zer ote da dorrea, zein eraikuntza mota, non dago kokatua...? Informazioa bilatu 3. -Igorlearen helburuaz, ikuspuntuaz eta tonuaz hausnartu. Kontzeptu hauek gogoratu eta testuan antzeman daitezkeen aztarnak azpimarratu. Formaren gaineko hausnarketa 2.</p>
JARDUERAK/PROCESOS LECTORES		
Informazioa bilatzea edo eskuratzea RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	Noiz hasi zen Pisako dorrea okertzen? Zergatik?
	Erantzuna Respuesta	1178an, zoru ezegonkor hartan hiru metroko sakonerako zimenduak ez zirelako nahikoak.
	2.	Zergatik ez zeukaten helburutzat 60ko hamarkadan dorrea erabat zuzentzea?
	Erantzuna Respuesta	Dorrearen inklinazioa zelako turistak gehien erakartzen zituen elementua.
	3.	Zer da Pisako dorrea? <ol style="list-style-type: none"> 1. Eraikuntza militarra. 2. Katedralaren parte. 3. Turismo bulegoa. 4. Historia museoa.
	Erantzuna Respuesta	Katedralaren parte

Ulermen orokorra COMPRESIÓN GLOBAL	1.	Zenbat epetan eraiki zuten Pisako dorrea?
	Erantzuna Respuesta	Hirutan: 3. solairuraino lehendabizi, hurrengo lau solairuak ondoren eta Tommasso di Andre Pisanoren agindupean azkenik.
	2.	Aipatu 1838z geroztik dorrea zuzentzeko aurrera eraman ziren lau ahaleginak.
	Erantzuna Respuesta	- bide bat industea zimenduak bistan utziz; - zementoa botaraztea oinarrian; - Ingeniari, matematikari eta historialari talde bat Azoreetan bildu zenekoa proiektua eztabaidatu eta martxan jartzeko; - Zorutik 70 tona lur kentzea.
Interpretazioa INTERPRETACIÓN INFERENCIAS	1.	Gutxi falta zuen dorreak amiltzeko. Zer esan nahi du horrek? -gutxi falta zela bukatua izateko -erortzeko zorian zegoela -gutxi falta zela inauguratzeko
	Erantzuna Respuesta	Oharra: informazioaren berreskurapena ere izan daiteke, azken finean amildu eta erori sinonimotzat har ditzakegu eta. Erortzeko zorian zegoela
	2.	Gaur egun Pisako dorreak duen inklinazioa zenbatean hobetu da?
	Erantzuna Respuesta	4,47m - 3,99m = 0,48m.
Formaren gaineko hausnarketa	1.	<i>Horrenbestez, Pisako dorrea ez da gehiago okertuko... datozen 300 urteetan behintzat. Zer adierazten dute eten puntu horiek?</i>
	Erantzuna Respuesta	Ironia zantzua du. Irakurlearengan nolabaiteko sorpresa sortu nahi du eta hausnartzeko bidea ere irekitzen dio.

	2.	<p>Paragrafoen eraketari eta hauen hasieran ageri diren antolatzaileei erreparatuz, zein izango genuke testu honen egitura mota?</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Kausa-ondoriozkoa. 2. Konparaziozkoa. 3. Narrazio-sekuentzia. 4. Arrazoi bidezkoa.
	Erantzuna Respuesta	Narrazio-sekuentzia.
	Aukeran	Zertarako nabarmentzen ditu idazleak testuaren hasierako hitzak?
		Testuaren abiapuntua da: tokia eta denbora zehazten ditu.
Edukiaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN CONTENIDO	1.	Nongoak ziren testuan aipatzen diren arkitektoak?
	Erantzuna Respuesta	Italiarrak. Izen-abizenek hala erakusten dute.
	2.	<p>Zein da testu honen helburua?</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Pisako dorrearen garrantzia militarra aipatzea. 2. Dorrearen inklinazioak turismoaren gorakadan izan duen eragina azpimarratzea. 3. Dorrean egindako aldaketek egin dioten mesedea azaltzea. 4. Dorrearen historiaren berri ematea.
	Erantzuna Respuesta	Dorrearen historiaren berri ematea. Oharra: Hau 2.ean ere koka daiteke
PRAKTIKAN JARRI/PUESTA EN PRÁCTICA – OHARRAK/OBSERVACIONES		
Orokorrean nahiko erraza izan da. Emaitzak onak izan dira. Hala ere, arazorik handienak formaren gaineko galderetan izan dituzte. Hauetan aukera anitzak emateak eta estrategietan gehiago sakontzeak erantzuna asko erraztuko lukete.		